



**Mondragon
Unibertsitatea**

**Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultatea**

COVID-19

HUHEZIKO PROTOKOLOA (14B)

Eskoriatzan, 2022ko apirilaren 25ean.

AURKIBIDEA

1. SARRERA	2
2. XEDEA ETA IRISMENA	3
3. ARRISKUAK IDENTIFIKATZEA ETA SAIHESTEA.....	3
4. SENTSIBILITATE BEREZIKO PERTSONEN KUDEAKETA	10
5. ANTOLAKUNTZA NEURRIAK ETA ESPAZIOEN EGOKITASUNA.....	11
6. LARRIALDI PLANA	11
7. COVID-19A DELA-ETA ESKURA IPINITAKO BALIABIDEAK.....	12
8. DATUEN BABESA	13
I. ERANSKINA: FAKULTATEAN MODU EZ PRESENTZIALEAN LANA EGITEKO GOMENDIOAK.	14
II. ERANSKINA: KANPO ERAKUNDEAK INSTALAZIOETARA SARTZEA ETA MANTENTZEA....	15
III. ERANSKINA: JARDUERA AKADEMIKOAK GARATZEKO PLANGINTZA	16
IV. ERANSKINA: PLATOKO ETA BESTE KOKAPEN BATZUETAKO PRAKTIKEI ETA GRABAZIOEI BURUZKO PROTOKOLOA	19
V. ERANSKINA: IRAKASLE ETA IKERLARIEN ETA ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO LANGILEEN ORDEZKAPENAK EGITEKO PROTOKOLOA.....	20
VI. ERANSKINA: BIBLIOTEKA ETA MAILEGU ZERBITZUAREN ERABILERA	22

1. SARRERA

Dokumentu honen helburua honako hau da: 2021-2022 ikasturteari begira, unean-uneko egoera epidemiologikoaren arabera, Huheziko erabiltzaileek (langileak, ikasleak, hornitzaileak eta bestelako bisitariak) COVID-19aren aurrean Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean (Huhezi), Eskoriatzako eta Aretxabaletako campusetan, osasun zaintza eta segurtasun aldetik hartu behar dituzten prebentzio neurrien ekintza protokoloa ezartzea. Oro har, zenbait aktibitate aurrera eramateko prebentzio neurriak definitu dira protokoloan, kasu berririk ager ez dadin eta, agertuko balira, nola jokatu jakiteko.

Protokoloa idazteko, alde batetik, agintari publikoek –besteak beste, Hezkuntza Sailak, Osasun Sailak, Osalan, Lan eta Justizia Sailak–, eta, bestetik, Osartenek –Huheziko prebentzio zerbitzu mankomunatuak– helarazitako irizpideak hartu dira kontuan.

Oso aldakorra eta ziurgabea den egoera berezi honek etengabe neurriak berrikustea eskatzen du, aktibitateak osasun eta segurtasun osoarekin egiten direla bermatzeko. Aurrerantzean, neurri berriak argitaratzen eta iristen diren heinean, aldatuz joan daiteke dokumentua.

Erakundeak neurri ahalik eta zehatzenak ezarri ditu, baina erabiltzaile oren erantzukizuna ere bada neurriok zuzen eta modu egokian betetzea.

Dokumentu hau Fakultateko lantalde batek landu du, eta Zuzendaritzak onartu. Lantalde hori Zuzendaritza Kontseiluko, Prebentzio Zerbitzuko eta alderdi akademikoko kideek osatu dute.

2. XEDEA ETA IRISMENA

Protokoloaren xedea Fakultateko erabiltzaileen osasuna bermatzeko, birusa ez hedatzeko eta instalazioetan aktibitateak segurtasunez egiteko neurriak ezartzea da, betiere osasun agintariek eta agintari publikoek ezartzen dituzten epe eta neurriei jarraituz.

2021-2022 ikasturtean zehar, bi egoera izatea aurreikusten da:

- **Normaltasuna:** 2021-2022 ikasturte hasieratik datorrena eta mantentzen dena. Egoera horretarako higie eta segurtasun neurriak ezarri dira protokolo honen bidez. Egoera horretan, erabiltzaileek COVID-19 kasu susmagarriak eta positiboak agertzea aurreikusten dira.
- **“KONTINGENTZIA” EGOERA:** pandemian zehar bizi izandako antzeko balizko osasun-krisi egoera bat gertatzen bada.

Egoera batetik besterako aldaketa horretarako eskuduntza duten organo eta agintarien erabakiz egingo da eta egoera bakoitzean zehaztuko dira beharrezko irizpide eta neurriak.

Protokoloa Fakultateak Eskoriatza eta Aretxabaletako campusetan dituen instalazioetara bertaratzen diren pertsona guztiei zuzendua dago, eta baita beste erakunde batzuetan zein Mondragon Unibertsitateko gainontzeko campusetan lan egin behar duten Fakultateko langileei ere.

3. ARRISKUAK IDENTIFIKATZEA ETA SAIHESTEA

Koronabirusa SARS-CoV-2 agente biologikoa da, eta COVID-19 gaixotasuna sortzen du. Osasun agintarien arabera, ebidentzia zientifiko metatuarekin, gaixotasuna pertsona batetik beste batera transmititzen da elkarren artean eduki duten hurbileko harreman edo kontaktu estuagatik. Kutsatuta dagoen pertsona batek beste bati transmititu diezaioke oso distantzia motzean igorritako arnasbideetako aerosolak edo tamaina handiagoko partikulak arnastuta eta ukituta. Garatutako jardueraren arabera izango da sortutako aerosolen kontzentrazio eta tamaina; hartara, minimoa arnasa lasai hartzean gertatzen da eta ugarituz doa ozen hitz egin, oihi egin, abestu, eztul/doministiku egin eta jarduera fisiko intentsoak egitean.

Zeharkako kontaktuaren bidez ere kutsa daiteke; izan ere kutsatuta dauden azalera eskuekin ukitu eta, ondoren, ahoa, begiak edo sudurra ukitzearen bidez ere kutsa daiteke. .

Frogatuta dago transmisio handiagoa dagoela distantzia motzean, espazio itxi eta jendetsuetan, aireztapen ona ez dagoenean eta segurtasun neurri egokirik ez dagoenean.

Momentu honetan, lan eremuko agente biologikoekiko esposizio mailari dagokionez, SARS-CoV-2a bigarren taldean aurkitzen da (664/1997 Errege Dekretuko II. eranskina).

Lan Ikuskaritzaren arabera, Fakultateak egiten duen aktibitatea ez da arriskutsua koronabirusari dagokionez, ez baita osasun arloko aktibitate bat, eta, beraz, Arrisku Biologikoen Errege Dekretua ez da aplikatu behar.

Hala, bada, esposizio arriskuaren maila baxua da:

- 1,2 metro baino gehiagoko distantzia mantentzen denean.
- Kontaktua –edozein dela ere– saihesteko babes neurriak hartzen direnean.
- Gelak eta barne espazioak ondo aireztatuta daudenean.

Horrenbestez, honako **kutsadura iturri** hauek identifikatu dira:

- Egitekoetan 1,2 metroko distantzia ez mantentzea.
- Erabiltzaile batek baino gehiagok azalera, material eta tresneria berbera ukitzea aurrez garbiketa eta higiene neurririk hartu barik.
- Barne espazio itxiak denbora luzean ondo aireztatzen ez direnean.

Halaber, Fakultateko aktibitatea kontuan izanda kutsadura transmisioa ahalik eta gehien saihesteko, alderdi hauek hartu dira aintzat: klaseak eman eta jasotzeko modua; ikasle zein langileen lan egiteko modua; instalazioek eskaintzen dituzten aireztatze sistemen erabilera zuzen eta egokia, baliabide (didaktiko zein teknologikoak) eta espazioak (ikasgelak, lan bulegoak, biblioteka, infogelak, jangelak, aretoak eta gainontzeko espazio komunak) eta haietarako sarbidea, erabiltzaile ooren aldetik; eta egiten diren lan desplazamenduak.

Aipaturiko arrisku iturriak saihesteko eta ekiditeko, honako prebentzio neurri eta ekintza hauek jarri dira martxan.

3.1 LAN JARDUERAK MODU EZ PRESENTZIALEAN GARATZEKO AUKERAK

Langileen kasuan, telelana egitea hobetsiko da, ahal den neurri eta kasuetan. Ondorengo gomendioak lehenetsiko dira.

Arlo bakoitzeko pertsonak antolatu egin beharko dira, Fakultateko espazioetan presentzialtasuna orekatzeko eta jarduerari erantzuteko.

Covid-19arekiko zaugarri diren pertsonak, laneko presentzialtasunari dagokionez, laneko osasun zaintzako medikuak emandako jarraibideak beteko dituzte. Lerro edo lan-taldeko koordinatzaileari jakinaraziko diote.

Covid-19aren eragin zuzen edo zeharkakoengatik (adibidez, positiboa izan, koarentenan egon, haurren ikastetxeko nahitaezko zen zerbitzuren baten itxiera) etxetik garatu dezakete beraien jarduna.

I. eranskinean daude Fakultatean modu ez presentzialean lana egiteko gomendioak.

3.2 INSTALAZIOAK

Instalazioetan, honako gune eta espazio hauek definitu dira:

- a) Ikasgelak. Gehienezko edukiera errespetatuko da
- b) Talde langelak: talde lanak eta bilerak egiteko espazio komunak. Horrela identifikatuta egongo dira. Gehienezko edukiera errespetatuko da.
- c) Langileentzako bilera gelak: langileek erabiltzeko gelak; erreserba egin beharko da.
- d) Biblioteka eta Mailegu Zerbitzua: neurri propioak izango ditu, bertan egoteko, eta materiala erabiltzeko eta mailegatzeko.
- e) Aretoak: ekitaldiak egiteko espazioak.
- f) Aretxabaletako campusean soilik: platoa, errealizazio gela, irratia, edizio gelak, animazio tailerra, infogelak: neurri propioak izango dituzte, bai bertan egoteko, eta baita materiala erabiltzeko ere.
- g) Ikasleen arreta zerbitzuak (IAZ) eta harrera.
- h) TZ eta multimedia
- i) Taberna: neurri propioak izango ditu.
- j) Jangela: edukiera errespetatu beharko da.
- k) Gainontzeko espazio komunak (klaustroa, mahai eta altzariekin hornitutako espazioak, kanpoaldean dauden espazio komunak...)

Gune eta espazio horietan bete beharreko neurriak eta argibideak 3.4. puntuan ageri dira.

3.3. INSTALAZIOETARAKO SARRERA

Helburua honako hau da: prebentziozko neurriak ezartzea arnasketa sintomarik edo bestelako sintomarik ez duten pertsonen koronabirusa izatea eta beste pertsona batzuk kutsatzea saihesteko.

Hartara **ez da inola ere instalazioetan sartuko, harik eta osasun agintariek COVID-19aren egoera guztiz konpondu dela esan arte.**

- COVID-19aren sintomak dituztenak (eztula, sukarra, arnasa hartzeko zailtasuna)
- COVID-19aren diagnostikoagatik bakartuta dauden erabiltzaileak
- Etxean berrogeialdian daudenak
- Kutsatua egon daitekeela susmoa duen edonor

1. Instalazioak zabalik egongo dira astelehenetik ostiralera, 07:30etik 19:00etara bitartean (edo jarduera akademikoa bukatu arte), eta baita egutegi akademikoan finkatuta dauden larunbatetan ere.
2. Sarbidea: gomendagarria da eguneroko ohiko erabiltzaile ez diren kanpo bisitari eta hornitzaileekin, hitzordua hitzartzea.
3. Eraikinetako irteera eta sarrera modu ordenatuan egitea hobetsiko da.
4. **Instalazioetan , oro har, ez da derrigorrezkoa izango maskara uneoro erabiltzea. Erabilera hautazkoa izango da eta maskara erabiltzea aukera pertsonala izango da. Ondorengo kasuetan da gomendagarria maskara erabiltzea:**
 - Sentsibilitate berezia duten pertsonak
 - Langileen kasuan, segurtasun-distantzia edo aireztapen egokia bermatu ezin denean.
5. Instalazioetan, kartelak egongo dira, hainbat oharrekin. Horiek betetzea derrigorrezkoa izango da.
6. **Aireztapena. Toki guztiak ahalik eta aireztatuen egongo dira. Leihoak zabalduko dira gutxienez 10 minutuz ordu betero.**

Sintoma susmagaririk ez badauka, Fakultatera gerturatuko da eta hurrengo 10 egunetan arreta berezia jarri beharko du. Edonola ere, gomendio hauek jarraituko ditu: antigeno testa egingo du ahal duen neurrian, maskara ondo jantzia erabiliko du eta etengabe, ondo aireztatutako tokietara hurbilduko da, eskuak sarritan garbituko ditu eta segurtasun distantzia zaintzen saiatuko da.

Oharra: erabiltzailearen batek ikusiko balu eremuren batean hartutako neurriez gain besteren batzuk hartu beharko liratekeela, Prebentzio Zerbitzura bideratuko du proposamena, prebentzioa.huhezi@mondragon.edu helbidera bidaliz.

3.4 INSTALAZIOETAN INTERAKZIO PERTSONALA MURRIZTEKO NEURRIAK

Guneen arabera, neurriak honako hauek izango dira:

- a) Ikasgelak: eskolak emateko gelak. Edukiera jarraitu beharko da., 1,2 metroko distantzia mantenduko da. Korridoreetan hidrogelak egongo dira, eta ikasgelara sartzean eta handik irtetean garbituko dira eskuak. Gailu komunak gailuetarako garbigarriarekin garbituko dira.. **Ikasgela barruan eskolak emateko orduan, neurri zehatzagoak ezarri dira (ikus III. Eranskina, Jarduera akademikoa garatzeko plangintza).**
- b) Talde langelak: talde lanak edo bilerak egiteko espazio komunak. Korridoreetan hidrogelak egongo dira; ikasgelara sartzean eta handik irtetean garbituko dira eskuak, eta garbigarri bat egongo da mahaiak eta aulkiak garbitzeko. Erabiltzailearen erantzukizuna da erabili aurretik eta ondoren aulki eta mahaiak garbigarriarekin garbitzea. Bilerak maskararik gabe egin daitezke, betiere, segurtasun-distantzia bermatzen duen edukiera jarraitzen bada eta aireztapen egokia badago.
- c) Biblioteka eta Mailegu Zerbitzua: neurri propioak izango ditu, bertan egoteko, eta materiala erabiltzeko eta mailegatzeko (ikus VI. eranskina).
- d) Aretoak: ekitaldiak egiteko espazioak. Erreserba egin beharko da alde zurratik eta dagokion edukiera bete.
- e) Arexabaletako campusean soilik: platoak, errealizazio gelak, irratia, edizio gelek, animazio tailerrak eta infogelek neurri propioak izango dituzte, bai bertan egoteko eta baita materiala erabiltzeko ere. Eskuak garbitzeko hidrogela egongo da, eta garbigarri bat mahaiak eta aulkiak garbitzeko. Erabiltzailearen erantzukizuna da erabili aurretik eta ondoren aulki eta mahaiak garbigarriarekin garbitzea. Kanpo grabazioak egiteko protokoloa ere sortu da (ikus IV. Eranskina)
- f) Ikasleen arreta zerbitzuak (IAZ) eta harrera: eskuak garbitzeko hidrogela, gailuak garbitzeko garbigarria dago bertan Susmoren bat balego, urgentziaz tenperatura hartzeko.
- g) TZ: eskuak garbitzeko hidrogela, gailuak garbitzeko garbigarria, eskularruak daude bertan.
- h) Arexabaletako eta Eskoriatzako jangelak: nahitaez edukiera errespetatu beharko da.
- i) Gainontzeko espazio komunak (klaustroa, mahai eta altzariekin hornitutako espazioak, kanpoaldean dauden espazio komunak...): eskuak garbitzeko hidrogela egongo da, eta garbigarri bat mahaiak eta aulkiak garbitzeko. Erabiltzailearen erantzukizuna da erabili aurretik eta ondoren aulki eta mahaiak garbigarriarekin garbitzea.
- j) Lan egiteko bulegoak:
 - Bulegoak ahalik eta aireztatuen egon behar dira.
 - Lanean hasi aurretik eta ostean, bulegoan **norberak erabiltzen dituen gailuak**, teklatua, pantaila, sagua eta ordenagailuak garbitzea hobesten da, baita bukatzean ere. Norberaren gailuak garbitzeko, garbigarri bat egongo da bulego bakoitzean, garbitzeko zapi batekin batera
 - **Gailu komunak** (inprimagailuak, esaterako) pertsona bakoitzak garbituko ditu, erabili ostean. Aldamenean, garbigarri bat eta erabilera bakarreko zapia egongo dira. Zapia erabili ondoren, aldamenean egongo den zaborrontzi pedaldunean botako da.

- Horrez gain, bulegoetan eta lanerako erabiltzen diren toki komunetan, **hidrogelak** egongo dira, eskuak sarri garbitzeko.
 - Ziurtatuko da toki guztietan badagoela behar beste babeserako ekipamendu. Alegia, toki guztietan egongo dira hidrogelak, edukiontzi tapaduna eta pedalduna, garbigarria eta papera. Edonola ere, zerbait falta bada, harrerara eska daiteke. Hidrogel eta garbigarrien kasuan, ontziak hustean Eskoriatzako Campusean harrerara eta Aretxabaletakoan IAZra eraman beharko dira, eta berria eskatu.
- k) . Eztula eginez gero, ahoa eta sudurra ukalondoarekin babestuko dira.
- Instalazio eta eraikinetan, eta ahal den neurrian, atek zabalik egongo dira lanorduetan.
- l) Atsedenerako eremuak, bazkaltzeko tokiak eta abarrak erabiltzean, kontuan hartuko da gehienezko edukiera: gehienezko edukiera atean zehaztua egongo da. Bazkaldu aurretik eta ondoren, derrigorrezkoa izango da eskuak garbitzea, baita norberak erabilitako tokia ere.
- m) Oro har, Eskoriatzako eta Aretxabaletako eraikinetan pertsona pilaketak ekidingo dira, barruan zein kanpoan; esaterako, sarrera ateetan, Eskoriatzako zubian...
- n) Ezingo da erre Eskoriatzako eta Aretxabaletako eraikinetan, ezta campusa osatzen duten beste espazioetan ere.

3.5 KORONABIRUS KUTSATZE BAT DAGOENEAN NOLA JOKATU

Irizpide orokor gisa, Osakidetzak eskainitako jarraibideak beteko dira.

3.5.1. Diagnostiko positiboa izan denean

Pcr zein antigeno frogak eginda COVID-19aren diagnostiko positibo ematen badu, erabiltzaileak (ikasle, langile zein hornitzaile) ondorengo prozedura jarraituko du.

- Ikasleen kasuan: Titulazio bakoitzak MUdle-n ikasleen txokoan edo KoNet aplikazioan eskuragarri dagoen galdetegia betez.
- Langileen kasuan: jakinarazpen bat bidaliko zaie lantaldearen edo ezagutza lerroaren koordinatzaileari eta Prebentzio Zerbitzuari (prebentzioa.huhezi@mondragon.edu).
- Hornitzaileen eta bestelako bisitarien kasuan: jakinarazpen bat bidaliko zaie harremana egin duen pertsonari eta Prebentzio Zerbitzuari (prebentzioa.huhei@mondragon.edu).

. Prebentzio modura, ez dira Fakultatera gerturatuko eta beren osasun zentro eta medikuek esandakoa beteko dute. Osakidetzak web orrian ezarritako prozedura jarraituko da positibo kasuan, sintomekin daudenen kasuan eta hurbileko harremanen kasuan.

Laneko baja behar ez duten positiboek eta sintoma arineko susmagarriek maskara erabili beharko dute sintomak hasi ea 10 eguneko epean. Kasu honetan, modu ez presentzian lan egitea gomendatzen da.

Huheziko langileen kasuan (irakasle eta ikerlariak zein administrazio eta zerbitzuetako langileak) ordezkapenak egitea gertatuko balitz V. eranskinean agertzen den protokoloa jarraitu beharko litzateke.

3.5.2. Positibo baten hurbileko harremana

Erabiltzaileen batek hurbileko harremana (1,2 metro baino gutxiagora, 15 minutu baino gehiago eta maskara ondo jantzi gabe) izan badu positiboa izan den pertsona batekin, eta Covid-19arekin bateragarriak diren sintomak baditu gomendagarria da antigeno froga egitea; ez da nahitaezkoa isolatzea baina arnasketarekin zerikusia duen beste prozesu eta gaixotasunetan legez sintomak larriak direnean ez da instalazioetara gerturatuko. Kasu honetan egoera honen berri eman beharko du aurrez aipaturiko bideetatik.

- Ikasleen kasuan: Titulazio bakoitzak MUdle-n ikasleen txokoan edo KoNet aplikazioan eskuragarri dagoen galdetegia beteko dute.
- Langileen kasuan: jakinarazpen bat bidaliko zaie lantaldearen edo ezagutza lerroaren koordinatzaileari eta Prebentzio Zerbitzuari (prebentzioa.huhezi@mondragon.edu). Langilea bera jarriko da harremanetan Osartenekin.
- Hornitzaileen eta bestelako bisitarien kasuan: jakinarazpen bat bidaliko zaie harremana egin duen pertsonari eta Prebentzio Zerbitzuari (prebentzioa.huhei@mondragon.edu).

Sintomarik izan ezean hurrengo egunetan arreta berezia izan beharko du eta prebentzio-neurriak ahalik eta gehien zorrotz beharko ditu: ahal duen neurrian antigeno froga egingo du, musukoa janztea gomendagarria da, eskuak sarritan garbituko ditu, segurtasun distantzia zainduko du, jende pilaketak egon daitezkeen lekuak saihestuko ditu eta ondo aireztatutako tokietan ibiliko da.

Halaber, laneko osasun zaintzako taldeak bestelako gomendio eta irizpiderik emanaz gero, horiek ere bete beharko ditu.

4. SENTSIBILITATE BEREZIKO PERTSONEN KUDEAKETA

Osasun Ministerioak ebatzi du jarraian agertzen diren patologiaak dituzten pertsonak sentzibilitate bereziko langileak direla COVID-19aren aurrean:

- gaixotasun kardiobaskularra
- diabetesa
- biriketako gaixotasun kronikoa
- immunoeskasia
- tratamenduren bat indarrean daukan minbizia

Patologia horiez gain, honako hauek ere sentzibilitate bereziko taldean sartzen dira:

- 60 urtetik gorakoak
- haurdunak

Fakultateko langileen kasuan, laneko osasun zaintzako langileek, laneko medikuak eta erizainak erabakiko dute sentzibilitate berezia duten pertsonen egoeraren arabera zein neurri jarraitu. Hala, gerturatu aurretik, laneko osasun zaintzakoekin jarriko dira harremanetan, honako helbide elektronikoa honetara idatziz: vigilanciasalud@osarten.com. Osasun zaintzakoek erabakiko dute instalazioetara sar daitezkeen ala ez.

Gainontzeko erabiltzaileek kontsulta egin beharko dute medikuekin, instalazioetara etorri aurretik, eta haiek emandako jarraibideak bete.

5. ANTOLAKUNTZA NEURRIAK ETA ESPAZIOEN EGOKITASUNA

Huhezik honako antolakuntza neurri hauek ezarri ditu:

- arrisku iturriak identifikatzea eta saihestea
- arriskuak ebaluatzea
- protokoloak gauzatzea
- izaera ezberdineko erabiltzaile zein espazioen erabilerarako infografiak
- sentsibilitate bereziko pertsonen arreta ematea COVID-19a dela eta
- tresna eta hornikuntza bereziak erostea, hala nola pistola-termometroak, maskarak, eskularruak, hidrogelak, garbigarriak, distantzia mantentzeko manparak
- tresneria horren erabileraren eta neurri berezien gaineko bideo bat prestatzea
- ohar eta kartel bisualak prestatzea
- kanpoko pertsona eta erakundeentzako protokolo berezi bat zehaztea

Halaber, espazioei dagokienez, COVID-19aren ondorioz honako neurri eta berezitasun hauek aplikatu dira espazioetan:

- o Espazioak goitik behera aireztatzeko, ateak eta leihoak irekitzen dira campusetako gela guztietan. .
- o Aretxabaletako campuseko, Eskoriatzako eraikin nagusiko eta Dorletako aire primarioko instalazioen funtzionamendua honako hau da: une oro kanpoko haizearekin aireztatzen da eraikina, barruko haizea berrerabili beharrez.
- o Zenbait gelaren aireztapena sabaian dauden Velux leihoak irekita lortzen da (geletan badira pultsadoreak). Leihorik ez duten ikasgelak barruko airea berritzeko sistemarekin hornituta daude.
- o Dorleta eraikinean, aireztapen eraginkorragoa izateko, korrante gurutzatuak sortzeko sistema martxan dago.

6. LARRIALDI PLANA

Larrialdi plana COVID-19aren protokoloan ezarritako neurriekin uztartuko da. Alarmak jotzen duenean, eraikinetik irtengo gara, eta, ahal den neurrian, 1,2 metroko distantzia mantenduko dugu, bai irteterakoan, bai berriz sartzerakoan, bai elkartzeko puntuan.

7. COVID-19A DELA-ETA ESKURA IPINITAKO BALIABIDEAK


Produktua	Produktuen ezaugarriak
Gel hidroalkoholkoa	<ul style="list-style-type: none"> - Ez dago urarekin nahasi beharrik. - Alkohol isopropilikoa (% 70) eta glizerina
Garbigarria	<ul style="list-style-type: none"> - Lurruntze azkarreko produktua - Alkohol isopropilikoa (% 70) - pH 5,5-7,5 – Limoi usaina - Mahaigainak, pantailak, ordenagailuak, teklatuak aginteak eta abar garbitzeko egokia
Manparak	<ul style="list-style-type: none"> - Metakrilatozkoak eta neurrira egindakoak
Eskularruak	<ul style="list-style-type: none"> - Askotariko manipulazioak egiteko beharrezkoak direnean
Eskuorri bereziak, infografiak	<ul style="list-style-type: none"> - Ohar praktikoak biltzen dituzten eskuorriak, espazio eta erabiltzaileen arabera egindakoak

8. DATUEN BABESA

Osasun emergentzia honetan Datu pertsonalen tratamenduak, , datu pertsonalen babeserako araudia jarraitu behar du (Datuen Babeserako Araudi Orokorra eta Datuen Babeserako eta Eskubide Digitalen Bermerako 3/2018 Lege Organikoa). Araudi hauek osasun emergentzia aurreikusi dute eta hauen printzipioak aplikatu daitezke. Besteak beste, datu pertsonalak zilegitasunez, zintzotasunez eta gardentasunez tratatzea, xedea mugatzea (kasu honetan pandemia egoera aurrean pertsonen interesak babestea) zehaztasun printzipioa, eta datuen minimizatze printzipioa. Azken honi buruz, tratatutako datuak dagokion xederako mugatuta egon beharko dira soilik, eta tratamendu hori ezingo da hedatu beste datu pertsonal batzuetara xede horretarako hertsiki beharrezkoak ez badira.

I. ERANSKINA: FAKULTATEAN MODU EZ PRESENTZIALEAN LANA EGITEKO GOMENDIOAK

- Ahal den neurrian, prestatu espazio bakarra eta berbera lan egiteko.
- Txukundu inguruak, traba eta oztopo izan daitekeen guztia baztertuz.
- Zaindu espazioa, argitasuna eta ergonomia.
- Zaindu tenperatura eta aireztapena.
- Eduki instalatuta eta eskura beste batzuekin web edo Internet bidez lan egiteko tresneria: VPN sistemak, tresna kolaboratiboak (mudle, intraneta, programa espezifikoak...).
- Ipini pantaila gutxienez 55 cm-ko distantzian eta 30 °-ko maldarekin, eta ekidin dirdirak.
- Saiatu ordubeteko maiztasunez atsedenerako tarte txikiak hartzen.
- Hidrata zaitez maiztasunez.



Bestalde, malgutasuna dela eta, etxetik eta Fakultatetik lanean aritzen direnentzat aukera dago baliabideak bikoizteko, irizpide hauek betetzen badira:

- Laneko segurtasuneko eta osasun zaintzako medikuak gomendatu izana, betiere norberaren lanpostuari lotuta.
- Alta partzialean egotea.

Aukera horietatik kanpo geratzen diren kasuak banan-banan aztertuko dira.

Egun eskaintzen diren baliabideen zerrendan azaltzen direnak TZtik bideratzen direnez, eskaerak TZk jasoko ditu. TZ arduratuko da koordinatzaileekin kontrastea egiteaz.

Honako hauek dira bikoiztu daitezkeen baliabideak:

- Bigarren pantaila
- Bigarren teklatura
- USB lapurra
- Kableak
- Adaptadoreak

Docking-a ez da bikoiztuko.

Baliabidea hartzen duen erabiltzailea arduratuko da materiala egoera onean mantentzeaz.

II. ERANSKINA: KANPO ERAKUNDEAK INSTALAZIOETARA SARTZEA ETA MANTENTZEA

Dokumentu hau Fakultateak kontrata zein azpikontratekin (aurrerantzean, ENPRESA) koordinazio aktibitatea egiteko bestelako dokumentuei gehituko zaie eta onespena bidaliko du ENPRESAK fakultatera.

Antolakuntza neurriak:

- ENPRESAK ziurtatu behar du ezarri dituela eta bere langileek betetzen dituztela COVID-19ari dagozkion neurriak.
- Sintomak dituen inor (eztula, sukarra, arnasa hartzeko zailtasuna) ez da inolaz ere instalazioetan sartuko, non eta osasun agintariek ez duten esaten COVID-19aren egoera guztiz konpondu dela.
- Fakultateko mantentze lanetako pertsona egongo da zain, eta segurtasun distantzia mantentzea hobesten da.
- Beste pertsona batzuekin, 1,2 metroko distantzia mantenduko da.
- Enpresak tresneria propioa ekarriko du. Ezingo du erabili Huheziko tresneria.
- Norbera Babesteko Ekipamenduak erabili beharko dira lan egin bitartean: maskara eta eskularruak.

Garbitasun neurriak:

- Eztula egiterakoan, ahoa eta sudurra ukalondoarekin babestuko dira.
- Begiak, sudurra eta ahoa eskuekin ez ukitzen saiatuko da.
- Erabili beharreko tresneria beste norbaitekin partekatzea nahitaezkoa bada, tresneria garbitu beharko da, erabili aurretik eta ondoren.
- Lan egiteko espazioak ahalik eta aireztatuen egon beharko du.

III. ERANSKINA: JARDUERA AKADEMIKOAK GARATZEKO PLANGINTZA

Helburua pertsonen arteko harremanaren ondoriozko transmisio probabilitatea murrizteko neurriak hartzea eta pertsona horien arteko harremanak azkar lokalizatzea da. Horregatik, segurtasun neurriak hartu behar dira, eta oinarritzko neurri horien artean daude pertsonen arteko distantzia, maskaren erabilera, espazio itxien aireztapen egokia eta eskuetako higieina.

Ikasle batek edo talde oso batek bakartuta edo berrogeialdian egon behar bada, eskolak online modalitatean jarraitu ahal izango ditu.

Mendeberri 2025 marko pedagogikoaren barnean, 2020-2021 ikasturtean testuinguru ezberdinak erabiliko dira gradu eta masterretako jarduerak akademikoak garatzeko: campusean bertan zein campusetik kanpo eta ingurune digitalean.

A. ON Campus jarduerak gela barruan garatzeko neurriak:

- Titulu bakoitzak maila eta talde bakoitzaren sarrera-irteeren eta atsedenen ordutegiak finkatuko ditu, talde pilaketak ekiditeko.
- Gelara bertaratutako ikasleen erregistroa MUDle bidez eramango da.
- Maila eta talde bakoitzari esleitutako gela ikasturte guztian zehar mantenduko da.
- Gelara sartzean eta handik irtetean, pertsona guztiek eskuak garbituko dituzte gel hidro-alkoholikoarekin.
- Maskara erabiltzea ez da derrigorrezkoa izango.
- Ikasleak gelako mahai eta aulki berbera erabili beharko du modulu edo materia berak irauten duen bitartean.
- Beste edozein jarduerak bideratzeko, ziurtatu beharko da pertsona guztien artean 1,2 metroko distantzia mantentzen dela.
- Geletan ezin da jan.
- Fotokopiak toki jakin batean utziko dira, eta ikasleak joan beharko du jasotzera. Eskoriatzako campusean, Erreprografia Zerbitzuan utziko dira, eta, Aretxabaletako Campusean, irakasleak berak eramango ditu orriak gelara. Hartu aurretik, eskuak garbituko dira.
- Ez da materialik partekatuko.
- Gelan materiala banatu behar bada, honako neurri hauek beteko dira: eskuak garbitzea; materiala pertsona batek banatuko du, eta, ondoren, eskuak garbituko dituzte.

B. OFF Campus jarduerak bideratzeko neurriak:

- Kanpo erakunde batera bisita bat antolatzen bada, erakundearen COVID-19 protokoloa eta arauak bete beharko dira.
 - **Kanpo erakundeetan egin beharreko PRAKTIKAK:** curriculum barneko zein kanpoko praktikak, GBLa edo MBLa kanpo erakunde batean bideratzen direnean, kanpo erakundearen COVID-19 protokoloa eta arauak bete beharko dira (PCRaren edo antzeko proben derrigortasuna barne). Momentu oro enpresaren edo erakundearen irizpide eta arauak jarraitu beharko zaie. Fakultateko kanpo praktiken arautegian zehaztasun gehiago dago jasota.

- **IKASLEEN MUGIKORTASUNA**

2020-2021 ikasturteko ikasleen mugikortasun programak mantendu egingo dira 1. eta 2. seihilekoetan, bai Fakultatek atzerrira doazen ikasleentzat, bai atzerritik Fakultatera etortzen direnentzat, unean-unean osasun egoerak aukera ematen duen heinean.

1. 2020-2021 ikasturtean, Europako eta Espainiako mugikortasunak lehenetsiko dira, baina kasuan-kasuan Fakultateak Europaz kanpoko mugikortasuna ere baimendu ahalko du, baldin eta mugikortasuna hasten den unean MOEk arrisku-herrialde gisa izendatu gabeko herrialde bat baldin bada.
2. Plazak esleitu eta konfirmatu bitartean, ikasleek informazioa jasoko dute egonaldietan dauden aldaketen inguruan. Ikasleari mugikortasunean dituen alternatiben berri emango zaio, bai ikaslearen ekimenez, bai ikaslea jaso behar duen erakundearen ekimenez:
 - Egonaldia bertan behera utzi ahal izango da.
 - Egonaldia atzeratu ahal izango da.
 - Egonaldia aldatu ahal izango da.

1. Ikasleak adierazi behar du bat datorrela atzerriko unibertsitateek adierazitako nazioarteko mugikortasunaren modalitate hauetakoren batekin:

a. **Mugikortasun fisikoa:** ikaslea fisikoki joaten da helburuko unibertsitatera, programatutako ikasketa-aldi osoan. Irakaskuntza modalitate presentziala edo erdipresentziala barne hartzen ditu. Mugikortasun fisikoa bat etor daiteke irakaskuntza-ikaskuntza eredu presentzial egokitu edo hibridoko mugikortasunekin.

b. **Mugikortasun birtuala:** mugikortasun horretan ez dago ikaslearen joan-etorri fisikorik, eta, nahitaez, aurrez aurrekoa ez den irakaskuntza-ikaskuntzako agertoki bati dagokio (birtuala edo lineakoa).

c. **Mugikortasun konbinatua edo *blended mobility*:** mugikortasun fisikoa eta birtuala uztartzen ditu. Mugikortasun fisikokoaldiak (irakaskuntza eta ikaskuntza presentziala edo erdipresentziala) laburragoak eta mugikortasun birtualekoaldiak baino lehenagoak izaten dira, baina txandakako ereduak konbina daitezke.

Mugikortasun beka programen onuradunek finantziario erakundeek eta mugikortasuna antolatzeaz arduratzen diren agentzia nazionalak edo, halakorik ez, MUK finantziarioari eta lekualdaketa buruz ezarritako baldintzak beteko dituzte. Desplazamendua gertatzen den guztietan (mugikortasun fisikoa edo konbinatua), onuradunak konpromisoa hartzen du estatuko eta nazioarteko agintariek nahiz nazioarteko erakundeek ematen dituzten osasun eta prebentzio arau guztiak betetzeko.

COVID-19aren ondorioz, baliteke helmugako erakunde edo herrialde batzuek PCRa, antigeno proba edo bestelakoak eskatzea. Proba horiek sortutako gastua eta helmugan eskaturiko baldintzak betetzearen erantzukizuna ikaslearena izango da.

Aurrez aurreko ikaskuntza posible denean, egonaldiak harrera unibertsitateko mugikortasun fisikoaren (aurrez aurre) parametro tradizionaleri jarraitu behar die. Mugikortasun birtuala oso modu lokalizatuan eta/edo esperimentalean gauzatu behar da, edo mugikortasun konbinatua edo *blended* mugikortasuna tartekatuz.

Mugikortasunaren helburu den atzerriko herrialdean konfinamendu edo mugikortasun murrizketa zorrotzik badago, ikasketen jarraikortasuna bermatzeko, irtenbide hauek eman daitezke, kasuan-kasuan, egoerak eta ikasketa-planak ahalbidetuko balu:

- a. Ikasketak urrutitik eta atzerrian amaitzea.
- b. Etxera itzuli eta atzerriko unibertsitateko programa urrunetik amaitzea.
- c. Etxera itzuli eta MUren programan erabat edo partzialki jarraitzea. Kasu horretan, atzeratzeko aukera aztertuko litzateke.
 1. Mugikortasun plaza baten onuradunak onartu beharko du ezen ezinbesteko arrazoiek eraginda gerta daitekeela atzerriko erakundeak bere jarraibide propioei edo estatuko edo nazioarteko erakundeenei jarraituz hasi aurretik hitzartutako mugikortasun mota edo herrialdea aldatzeko eskatzea eta bat-bateko aldaketak izatea eta egonaldia egokitzea.
 1. Mugikortasun motaren aldaketa malgutasun, segurtasun eta eragin ekonomiko eta akademiko minimizatzeko printzipioaren arabera egingo da. Mugikortasun mota edozein dela ere, jatorriko eta atzerriko unibertsitateen arteko erakunde arteko akordioak bermatzen du mugikortasun aldian egindako irakasgaien aitortpen akademiko.

IV. ERANSKINA: PLATOKO ETA BESTE KOKAPEN BATZUETAKO PRAKTIKEI ETA GRABAZIOEI BURUZKO PROTOKOLOA

Platoko eta beste kokapen batzuetako grabazioetan eta antzeko beste jarduera praktikoetan, fakultateko protokoloaren arauak errespetatuko dira, eta, horretaz gainera, honako neurri hauek aplikatuko dira:


- Kasu hauetan, ezin izango da grabaziora/praktikara sartu: 1) sintomak dituzten pertsonak, eta 2) azken 10egunetan COVID-19aren kasu positibo batekin bizi edo hurbileko harremana (15 minutu baino gehiago 2 metro baino gutxiago eta maskara ondo jantzita) izan duten pertsonak, betiere Covid 19arekin bateragarriak diren sintomak badituzte
- Lantaldeko pertsonaren batek (grabazioan/praktikan parte hartzen duten pertsonak) COVID-19aren sintomaren bat agertuz gero, grabaziotik atera beharko du, eta aurreko prozedura jarraitu beharko du.
- Ezin da taldeaz kanpoko inor sartu grabaziora/praktikara. Giza lantaldean, grabazioa egiteko ezinbestekoak diren pertsonak parte hartuko dute soilik.
- Mailegu Zerbitzuko langileek desinfektaturik entregatuko dute grabaziorako materiala.
- Ahalik eta pertsona gutxienez erabiliko dute ekipamendu bera. Grabazio/praktikaren batean materialen bat ikasle batek baino gehiagok erabili behar badute, materiala erabili duen pertsonaren ardura izango da hura desinfektatzea, kideari entregatu aurretik. Horretarako, **eskuragarri izango dituen garbigarriak erabiliko ditu, haien garbiketa-jarraitu Materiala ebatsi, lapurtu edo hondatuz gero, fakultateak halako kasuetarako ezarritako araudiari jarraituko zaio.**
- Grabazioa/praktika amaitu eta materiala itzuli aurretik, ikasleek desinfektatuko dute erabilitako material guztia.
- Campusetik kanpo egindako grabazio/praktiketan, fakultatearen kontura joango da desinfektatzeko kit-a (likidoa eta lehertzeko papera), mailegu indibidualetan izan ezik. Materiala garbitzean, kontuan hartuko dira fakultateko Mailegu Zerbitzuko langileek emandako jarraibideak.
- Platoan, desinfektatzeko kit bat eta erabili eta botatzeko eskularruak egongo dira.
- Debehatuta dago platoan ezer jan eta edatea. Platotik kanpoko praktika eta grabazioetan, segurtasun-distantzia mantenduz jan eta edan daiteke. Ezin da inongo tresnarik partekatu (edalontziak, platerak, sardexkak, etab.).
- Ahal izanez gero, lan ez-presentziala lehenetsiko da aurreproduktzio eta postproduktzio faseetan.

- Ahalik eta dokumentu gutxienez inprimatuko da paperean (lan-plangintzak, filmatze-aginduak, gidoiak, etab.). Dokumentuak kontsultatzeko gailu digitalak partekatzea ere saihestuko da.
- Makillaje-, ileapaindegi-, arropa- eta atrezzo-produktu eta -material guztia erabilera bakarrekoa izango da, ahal izanez gero. Pertsona batek baino gehiagok erabili behar baditu, aldeztu aurretik desinfektatu beharko dira.
- Arrisku-talderen batean dauden ikasleek hala jakinarazi beharko diote moduluaren edo lan-sekuentziaren irakasle arduradunari, ikasle horiek jarduera osagarriaren bat egin ahal izan dezaten beren osasuna arriskuan jarri gabe.
- Fakultateak lantalde teknikoaren esku jarriko du grabazioan/praktikan hartuko diren neurri buruzko informazio-orria. Dokumentu hori fakultateak kanpokoak diren eta grabazioan parte hartuko duten pertsona guztiek sinatu beharko dute, neurriekin ados daudela eta beteko dituztela ziurtatzeko.

V. ERANSKINA: IRAKASLE ETA IKERLARIEN ETA ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO LANGILEEN ORDEZKAPENAK EGITEKO PROTOKOLOA

Aurreikusten dugu ikasturte honetan langileen (irakasle-ikerlariak zein administrazio eta zerbitzuetakoak) bajak edota etxeratzeak gehituko direla COVID-19aren ondorioz. Aurreikuspen zehatzak egitea ezinezkoa izango denez, irizpide orokor batzuk jasoko ditugu dokumentu honetan:

Irakasle eta ikerlarien kasuan




Ordezkapenak antolatzeko modua gradu/masterraren (edota dagokion jardueraren) koordinatzaileekin eta moduluaren koordinatzaileekin adostuko da, egoeraren arabera: taldekideen artean egokitu, saioak berrantolatu, ordezko irakasle bat sartu, jarduera atzeratu...

Gratu/masterretan, zenbait egoera aurreikusten dira:

- # 1. egoera: moduluko irakasle bat konfinatuta. Irakasle taldearekin aztertu nola antola daitekeen irakasle taldea edota ikasle taldea etxean dagoen irakaslea ON campus saiometeran ordezkatzeko.
- # 2. egoera: moduluko bi irakasle etxean konfinatuta. Irakasle taldearekin aztertu moduluaren egokitzapena, egoerari erantzuteko (irakasle ordezko bat sartu, ON campus / OFF campusekin jokatu, online sinkrono eta asinkronoekin jokatu...).
- # 3. egoera: moduluko irakasle gehienak etxean. Aztertu ea online bidez erantzuten ahal zaion, eta, ezin bada, egutegietan egokitzapenak egiteko aukera aztertu.
- # 4. egoera: moduluko irakasle gehienak bajaran. Aztertu ea beste modulurik edo bestelako proposamenik aurreratu edo birkoka daitekeen "bajan dagoen modulua" ordezkatzeko.
- # ...

Administrazio eta zerbitzuetako langileen kasuan



Ordezkapenak antolatzeko modua lantaldeko arduradunak adostuko du. Beharra egonez gero, lantaldeko gainerako arduradunekin kontrasteak egingo dira. Egoeraren arabera, honako hauek aurreikus daitezke: lantaldeko kideen artean egokitzea, A+Zetako lantaldeetako kideen artean egokitzea edota zerbitzuetan etenak egotea.

Administrazio eta Zerbitzuak lantaldean, honako agertoki hauek aurreikusten dira:

#1 agertokia: administrazio eta zerbitzuetako lantalde bateko partaide bat etxean konfinatuta: lantaldeko partaideekin aztertu nola antola daitekeen lantaldea etxean dagoen partaidea ordezkatzeko aurrez aurre lan egitea eskatzen duten jardueratan.

#2 agertokia: administrazio eta zerbitzuetako lantalde bateko partaide bi edo gehiago etxean konfinatuta: lantaldeko partaideekin aztertu nola antola daitekeen lantaldea etxean dauden partaideak ordezkatzeko aurrez aurre lan egitea eskatzen duten jardueretan (telefonoak desbideratu, aurrez aurreko jarduera beste gune batera desbideratu, bekadunak baliatu...).

#3 agertokia: administrazio eta zerbitzuetako lantalde bateko partaide gehienak bajaran egotea: aztertu zein diren ezinbestean aurrera egin behar duten lanak eta haiei erantzuna emateko biderik egokiena. Horretarako, identifikatu behar da zein lanek itxaron dezaketen eta zeinek ez, eta zein den modurik egokiena lan horiek aurrera ateratzeko.

Helburua, ahal dela, zerbitzuetan etenik ez egotea izan beharko litzateke.

VI. ERANSKINA: BIBLIOTEKA ETA MAILEGU ZERBITZUAREN ERABILERA

a) Espazioaren erabilera:

- Eserita egon daitezkeen postuei dagokienez, identifikatuta egongo dira.
- Nahitaezkoa izango ez den arren, aukera egongo da programaren bidez aurrez tokia erreserbatzeko.
- Gehienezko edukiera errespetatuko da.
- Ez da derrigorrezkoa maskara jantzita izatea. Aukera pertsonala izango da hori.
- Norberaren ardura izango da tokia erabili aurretik eta ondoren garbitzea.

b) Material bibliografikoaren erabilera eta mailegua:

- Bilduma kontsultatu ahal izango da, beti ere maskara jantzita eta eskuak aurretiaz desinfektatuta.
- Liburua entregatzeko, kanpoaldean dagoen buzoian edo horretarako egokitutako espazio edo ontzian utziko da, eta 3 eguneko berrogeialdian jarriko da berriz ere maileguan utzi arte.

c) Gainerako gailuak eta baliabide didaktiko eta materialak:

- Erreserba programaren bidez erreserbatuko dira.
- Derrigorrezkoa izango da, entregatu aurretik, bertan dauden produktu desinfektatzaileekin garbitzea.
- Multimedia gunean erabilitako guztia garbitu beharko da bertan egongo den garbigarriarekin eta paperarekin.
- Aurikularrik ez da mailegatuko: nor bereak erabili beharko ditu. Mailegu Zerbitzuko zenbait gailuk (esaterako, solapa eta eskuko mikrofonoak) babes neurri bereziak beharko dituzte. Neurri horiek Mailegu Zerbitzukoek jakinaraziko dituzte.